

Oinak

Aintzane Usandizaga Lopez



Oinak

Aintzane Usandizaga Lopez

Julene Azpeitia 36. ipuin lehiaketa

2023

Lehen saria

2023ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Aintzane Usandizaga Lopez (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Oinak zintzilik ditu, ipurdia petrilean eta oinak zintzilik, uzkur, behatzak elkarren artean ezkutatzeko lehian. Joan zaitetz nahi baduzu, total... esan dit. Total. Ni egon edo ez berdin balitzaio bezala. Baina jakin badakit ni ondoan izateak lasaitzen duela, ez besteak geratu izan balira bezainbat, baina bai bakarrik geratzea baina gehiago.

Bakarrik eta oinak agerian.

Ez zait bereziki mingarria egiten pentsatzea nahiagoko lukeela beste norbait –norbaitzuk– geratzea berarekin, ia ziurtasunez jakitea buruan bueltaka darabilela berari gertaturikoa taldeko besteren bati gertatu izan balitzaio, nor legokeen –leudekeen– petrilean eserita oraintxe bere ondoan; nor ote litzatekeen egoera horretan “ni”, ondoan nagoen hau, “bera” den hori taldeko beste edonor izan balitz, oin biluziak kulunka.

Nireei begiratu diet. Zapatilen muturra maiztu samar dut, baina gehiago gustatzen zaizkit horrela. Urduritu egiten naute oinetako berri-berriek, itxura hori izateari noiz utziko dioten kontuz ibili beharrak. Behin maizturik daudenean kito, lasai egon liteke bat.

Begirada eroso daukat oinetako-muturrei josia. Bere oinen kulunka sumatzen dut, gorputzaren jarrera aldaketa urduriak, eta ez diot zuzenean begiratu nahi. Badakit lan itzela egiten ari dela oraintxe negarrari eusteko. Begiak inon kokatu ezinik dabil, geldituz gero gainezka egingo dioten beldur delako, eta sudur-hegalak gorritzen ari zaizkio. Hainbeste ezagutzen dut. Alergiarekin zer moduz galdetzerik izango nuke bera erosoago sentitzeko, nire begirada oinetako puntetan bezain eroso gutxienez, baina ez dut egin.

Isiltasuna erosoago zaio. Nik uste.

Lehen egiten zuen negar nire aurrean. Orain beste adin bat dugu, noski, baina haurrak ginenean maiz-maiz egiten zuen: haserretzen zenean, nahi zuena lortzen ez zenean, mintzen zutenean... Inozoa da agian, baina faltan dut

berarekin horixe partekatzea. Ez negarra preseski baina... horretarako konfiantza hori. Berak ez du negarrik egiten orain, ordea, eta nik ez nioke sekula halakorik esango.

Zerua berun dago. Ahoz gora esango ez nukeen beste gauza bat. Barre egingo lidake –lidakete–. Baina ederra da “berun” hori eta primeran azaltzen du eguraldi hau, ez koloreagatik bakarrik baizik... presio hori, azalean itsasten zaizun hezetasuna, behi bat miazka izatea bezala. Buru gaineko zama, haizea edozein unetan indarka hasiko den sentipen hori, guztia aldatuz, ekaitza ekarriz. Lehertzearen zera hori. Agian duela bi edo hiru urte berari esango nion “berun” hitzari buruzko hau guztia. Edo agian ez. Beti hil zaizkit hitzak nahi baino lehenago kanporako bidean. Eta nahiago izan dut beti berari begiratu, berari entzun.

Orain ere bai, isilik dagoenean ere bai.

Hezetasuna sumatzen zaio azalean. Distira ikus daiteke, seguruenik ondo kendu gabeko itsasoko gatzarekin eta izerdiarekin nahasian. Umeltasunak kopetako ilea itsasten dio begitarteko keinuari, eta kokotekoak, aldiz, areago harrotzen dizkio.

Laster etorriko da esan dit. Urruti, oso urruti balego bezala heldu zait bere ahotsa. Ur azpian esaldi bat esan eta asmatzera jolasten ginenekoa izan dut gogoan. Gaur ere gustura jolastuko nintzatekeen horretara, baina ez dut proposatu. Badakit hainbeste. Laster etorriko dena bere aita dela esan beharrik ez du, noski. Aita da beti bila joaten zaiona, ia beti atzerapenarekin. Baina ez hamar edo hamabost minutuko atzerapenarekin, ordu erdi eta ordubetekoarekin baino. Berak badaki. Eta berak badaki nik ere badakidala, baina ados, lasai esan diot eta isilik jarraitu dugu. Zalantza sortu zait benetan pentsatzen ote duen laster etorriko dela, edo barkamena eskatzeko modua ote den, ni berarekin hemen zain egoteagatik. Agian benetan pentsatzen du oraingoan baietz, gertatu zaiona gertatuta aita saiatuko dela benetan laster etortzen. Gajoa, pentsatu dut, baina gajoa pentsatu dut nire amaren ahotsarekin. Horixe entzun izan dut beti etxean zergatik berandutu naizen galdetu eta berarekin zain egon naizela esan izan dudanetan. Musika eskolatik atera eta gero, saskibaloia entrenamenduaren ostean, beti errepikatzen zen –da, gutxiagotan orain, baina da–. Bera urruti bizi delako, gauez bakarrik ez joateko moduan eta ni, aldiz, herriko erdigune betean. Txirrina jo eta amari berarekin zain egongo nintzela esaten hasi nintzen duela urte

batzuk. Inoiz ez dit arazorik jarri. Gero gajoa, itxaron berarekin, bai bota eta listo. Egia esan, niri gustatu egiten zitzaidan –zait– haren konpainia eta etxera beranduago joateko aukera eman izan dit sarri, asteko egun horri zegokion porru-patata plateraren parean betiko orduan eseri beharrean, alterazio txiki bat izaten zuen egunak, asteak, berarekin zain egotearen ondorioz. Eta alterazioa ohitura bihurtu zen gero. Duela oso gutxira arte gauza ugari kontatzen zizkidan tarte horietan, bestela sekula kontatuko ez zizkidakeenak. Horregatik dut sarri irudipena taldeko edonork baino hobeto ezagutzen dudala, bere etxekoek baino hobeto: nirekin hitz egiten zuen une horiengatik, nirekin edo niri, sarri bakarriketa traza hartzen baitzuten.

Askotan esan izan diot neure buruari, hurrengoan gehiago hitz egingo dudala, badaukadala zer esan, badudala iritzirik berak esandakoen inguruan, ez naizela hain txepela; baina gero ezin. Eta nahiago berari entzun.

Nire amak atsegin du. Horregatik ez zaio inoiz axolarik izan berarekin geratzea, ezta berandura arte ere, eta hori ez da kuadrillako guztiekin gertatzen. Oso jende gutxirekin gertatzen zaio, egiari zor. Muturra maiz okertu izan du kuadrillako besteekin. Baina bera atsegin du: jatun ona zen umetan –ni ez bezala–, atsegina, berritsua eta alaia; eta hazten joan ginen heinean, ikasle fina. Etxera zetorrenean mesedez eta eskerrik asko esaten zuen. Hori da garrantzitsuena nire amarentzat. Eta berarekin zain egoten uzten zidan, are, egoteko esaten zidan. Ez utzi bakarrik, gajoa.

Eta horretan, gauza gehiegitan ez bezala, biok ados gaude.

Oinetara begiratu diot berriro, disimuluz. Ez dakit ohartzen den etengabe uzkuratzen dituela. Ez dakit apropos egiten duen, baina ezkutatu nahi balitu errazagoa litzateke toalletan gaudenetan egiten duen bezala, apatx esertzea petrilean. Hondarpean ere hondoratzen ditu. Beltzez margotuak ditu atzazalak, kolorea altxatzen hasia. Ez zait esmaltearen usaina gustatzen esan zidan behin, baina azetonaren kiratsa oraindik gutxiago. Eta are gutxiago gustatzen zaizkio, hori ere badakit, bere oinak.

Ez dut oso ondo ulertzen zer dela eta ez zaizkion gustatzen, niri normalak iruditzen zaizkit. Oin normalik baldin badago behintzat. Normalak edo politak ere esango nuke. Baina ez diot esango ze arraro samarra da norbaiti esatea oin politak dituela. Edo niri behintzat lotsa ematen dit. Berak esan zidan arte nik ez

nuen sekula pentsatu nire oinak politak ote ziren ala ez. Ez zitzaidan sekula burutik pasatu ere egin. Galdetuko nioke oraintxe berak zer uste duen, baina hori are arraroagoa litzateke. Ez dut deseroso sentiarazi nahi. Orain behar duen azken gauza oinen inguruan pentsatzen hastea da, gainera.

Uda hasieran sandaliak jartzea izugarri kostatu zait beti esan zidan. Baina ez da guztiz egia. Bi urtetik hona soilik pasatzen zaio hori. Lehen ez zitzaion axola oinutsik ibiltzea edo sandaliak jartzea. Ez zituen oinak ipurdi azpian, hareatan edo aurkitzen zuen edozein kuxin-manta-denadelakoren azpian ezkutatzen. Barre egin zioten, baina, uda hartan. Barre egin zioten bere behatz "xelebreei", elkartzen zituen mintz horri. Barre egin zuten taldeko besteek, barre egin zuen berak, eta nik neuk ere bai. Baina hortxe hasi zen sandalia eta oinen ezkutaketan ibili behar hori.

Arroparekin ere antzera pasatu zen.

Txikiak ginenean harro-harro erakusten zuen bere ahizpa zaharragoengandik jasotako oihal txatal bakoitza. Koloreak, formak nahastuko zituen, ile nahasian gauza bitxiak txirikordatu.

Niri orduan ez zitzaidan soinean neraman arropa zipitzik ere axola, baina dibertigarria zen bera goizero gelara iristen ikustea. Orain ere nagia eman dit beti zer jantzi eta zer ez pentsatu beharrak. Amaren nola jarriko duzu ba hori beste horrekin asaldatuak ez ditut behin ere erabat ulertu. Baina amaren aholku tankerako aginduei kasu egin eta amonak oparitzen zizkidan arropak jantzita –paparrean euren abizena lotsagabe aldarrikatzen duten kirol arropa horietakoak– nahikoa zen taldearen begiradak saihesteko. Ze pija, ezta?-ren bat entzun dut akaso inoiz baina ez da beste inora joaten.

Berak, aldiz, ez zuen deitura potoloko arroparik izaten normalean. Kolore eta formekin jolastea zen bere indargunea, gaitasun itzela zuen, benetan, txunditurik uzten ninduen ausardiak. Hori horrekin jartzerik bazegoenik ere ez zitzaidan otuko niri sekula. Eta arreta ematen zuen. Ez da oharkabea pasatzekoa izan inoiz.

Pixkanaka, baina, tonuak apaltzen eta formak besteenen antza hartzen nola joan diren ikusi dut.

Lorpen berri batekin osatutako outfit koloretsu bat ekarri zuen batean, ohiko galdera etorri zen, keinu itxuraz axolagabe batekin: berria al da? Nire ahizparena zen, erantzun berak. A, orduan ez. Eta hitz egiten jarraitu zuten kuadrillakoek, bestelako aipamenik gabe. Zurea bai, ezta? Nire jertsea seinalatu zuen beste batek, eta nik erantzuterako estreno! erlijiosoa egin zidaten. Ohitura seko inozoa iruditu zait beti: norbaitek jantzi berria zuenean, arropa hori atximurkatu –edo zapatak izanez gero zapaldu– eta estreno! esatea zetzan kontua. Marka utziz gero, are hobeto.

Nire izen handiko jertsea estreinatutik geratu zen, eta bere eskuratze koloretsua bazterturik. Hor hasi zen arropaz lotsatzen. Oinez lotsatzen hasi zen modu berdintsuan.

Bera tematurik dago betidanik sentitu dela horrela, baina haurrak ginean ez zuen ezerk lotsatzen, etorri bezala egiten zituen gauza guztiak. Horrek txunditu egiten ninduen, baina baita izutu ere. Izutu, egin edo esaten ari zenak izango zituen ondorioak berak baino aaskoz lehenago aurreikusten nituelako, tentsioa sabelean ziztaka; eta, liluratu, eguna bere ipurdiari pega-pega eginda emateraino liluratu, nik ezingo nukeelako halakorik sekula egin.

Kontu zaharrak dira hauek, ordea. Bere baitan uzkurto nahian harrapatzen dut orain, behatzekin une honetantxe egiten ari den bezala. Oinak eta arropa koloretsuak ezkutatu nahi ditu, taldeak ikusi dezan.

Nik onartua dut nire lekua kuadrillan. Ez dut enbarazurik egiten. Erosoa naiz, baina badakit ez naizela hori baino askoz gehiago. Abantaila iruditzen zait, ordea: ez da askorik espero nigandik, eta bakean uzten naute.

Baina bera...

Berak talde barruan izan nahi du, eta ez edonor; suma dezaket. Guztiok nabaritzen dugu. Eta hor datoz arazoak. Une argitsuak –distiratsuegiak– eta ondoren lurpean, ilunpean ezkutatzeko beharrak. Gaur bertan gertatu bezala.

Diz-diz iritsi da, bere ahizpa zaharrenaren peto motz bat soinean, ezkerreko tirantea solte; bi txirikorda estu zituen adatsean eta irribarrea erauzi ezin. Kanporantz begira zeuden bere gorputz adarrak; besoak, paparra, sudurra.

Kolore biziko bainujantzia –aurreko bi udetako berdina– ikusten zen petoaren azpian. Nekeza egin zait luzeegi ez begiratzea, hain zegoen eder.

Gugana heltzerakoan, oinak altxatu ditu, zangoak aurrerantz luzatuz; bat lehenengo eta bestea gero. Ni ez naiz ohartu hasieran, deitura potoloa ez baitaramate oso nabarmen bere oinetakoek –izebak eskatu ere egin gabe oparitzen dizkidan zapatilen moduan– eta halakoetan ez ditut identifikatzen; baina besteen begietan sumatu dut. Eta bera eder sentitzen zela ikusi dut, harro, nahiz eta nik, egia esan, oinetara ez niokeen begiratu ere egingo besteek, begiak iltze, harantz so eginarazi ez balidate. Azkenean, batek egin dio galdera erlijiosoa: berriak? eta baietz berak, poza gainezka, nabarmenegi aukeran, ezkutatzeko argitsuegi, eta zapaldu egin dute guztiek banan-banan estreinaldien zeremonia lerroari jarraituz. Nik ere egin dut, baina oso suabe, oinetakoak ez zikintzeko. Ez zirudien, dena den, axola zitzaionik.

Hondartzara jaitsi garenean, betiko lekua hartu dugu. Toallak zabaltzerakoan beti ematen da protokolozko tentsio hori: nor noren ondoan jarri. Toki batzuk finkoak dira, erdian jartzen direnenak, erpinetan egon ohi garenona aldatzen da gehiago. Bera eta ni erpinetik hurbil ibili ohi gara. Ni beti, bera garaiaren arabera. Edo egunaren arabera, gaur azken aldian ez bezala, barruraxeago egokitu baita.

Uretara joan dira segituan gehienak, ni toallan geratu naiz, beti erdigunean jartzen diren beste birekin batera. Ez dut gogoko uretara joatea oso itsaso zalea ez naizelako, edo hori da behintzat ahoz gora esaten dudana – besteak ez dakit zergatik ez diren bainatu, dakidana da bietako bat ez badao, bestea ez dela sekula joango–. Egia esan, ura baino, uretarako bide luzea da hondartzatik gustatzen ez zaidana, eta horregatik geratzen naiz “gure lekuan”, oso bero ez bada behintzat. Igerilekuan desberdina da. Baina, azken aldian, hondartza besterik ez dugu. Izozki bat jango luketela aipatzen hasi dira erdialdekoak, toallan luze, gogorik gabe, gorputz adarrak mugitzeko indarririk ez balute bezala. Izugarria da nola hartzen duten jarrera geldo hori, ezer axolako ez balitzaie bezala, eta horrelaxe hain juxtu lortzen duten nahi duten guztia. Halaxe joan naiz ni, egoera hori ez luzatzeagatik hirurontzat izozkiak erostera, neure kasa otu balitzait bezala. Egia esan, ez zait inporta, eta tarteka toallatik altxatzea –jantzita baldin banago– eskertu egiten dut. Berari ere erosi diot, beti izozki berdina eskatzen baitu: txokolatea eta banilla.

Bueltatu naizenean, baina, uretatik atera berri zeuden guztiak, eta bera ez zegoen izozkietarako. Ingurua hankaz gora jartzen ari zen: toallak, motxilak, arropak... hondarra harrotzen ere ikusi dut. Broma bat da, ezta? Ezkutatu egin dituzue errepikatzen zuen, ahotsak dardara ez egiteko lan itzela eginez. Besteak geldi-geldi zeuden, zutik, berak toalla guztiak mugitu zitzaiz, isilean. Baten bat lotsaturik ere, ingurura begira.

Inoiz baino goizago joan dira gaur kuadrillakoak etxera. Ohi duguna baino ordubete lehenagoko trenea hartu dute. Berak ez du trenea oinutsik hartu nahi izan. Nire telefona utzi diot gurasoei deitzeko, berak oraindik ez baitu mugikorrik, eta begiradan ikusi dut besteen eskaintzaren zain zegoela. Ahalik eta azkarren jarri diot eskuetan nirea, egoera ezerosoagoa izan ez zedin.

Eta hementxe gaude.

Sekula entzun duzu inori oinetakoak ostu dizkietenik hondartzan? Galdetu dit, oinak kulunkatzeari utzi eta azkenean petrilean, ipurdi azpian, ezkutaturik dituela. Baietz esan diot, seguru ez egon arren. Uste dut baietz esatea behar duela. Behin oinetako berriak ekarriko eta... hurrengoan ez dut hondartzarako halakorik jarriko. Hobe bai, erantzun diot, nire izen deigarriko zapatiletan soa josirik, eta hauexek kendu eta berari emango nizkiokela pentsatu dut, edo galtzerdiak behintzat, oinak babesturik izan ditzan.

Baina ez naiz halakorik egiten ausartu.